

HERNANIK


kronika

2003 urtea
Abuztuak 1
Ostirala
Alea: 838
www.kronika.net

Tranbia zaharra martxan jarri zutela 100 urte beteko dira bihar eta ibilbidea egiteko aukera egongo da, oinez edo 'Txutxu trenean'

■ Ibilbidea markatuta egongo da Txantxangorri elkartetik hasi eta Donostiako Peñaflorida kaleraino ■ Txantxangorrin txartela hartu eta bideko elkarreko gastronomikoetan txartela seilatu eta jana eta edana emango zaizkie ibiltariei ■ 'Txutxu trena' jarriko zaie adineko pertsonai.

Tranbiaren Mendeurrena: 1903-2003



ARGAZKIA: JAVIER DE MIGUELEK BILDUA

Argazkian 1955. urteko Hernaniko Tranbia zaharra ikusten da, Plaza Berrian, ateera noiz emango zai.

BIHAR egun guztiko festa antolatuta dago, Hernaniko Tranbia zaharraren omenez. 100 urte pasa dira, Hernanitik Donostiarra Tranbiak egin zuen lehenbiziko bidaiatik (1903ko abuztuaren 2an) eta Tranbiaren ibilbidea egiteko aukera jarriko dute bihar, 10:00etik 18:00ak bitarte, Txantxangorri elkartean hasi eta Donostiako Gipuzkoa plazaraino. Lau elkartea ardu- rato dira bidean pintxoak eta edaria jartzen, eta Loiolako Salletarrak elkartean bazkari- omenaldia egingo zaie Tranbia zaharrean lan egin zuten eta oraindik bizi diren aitonei.

Antolatzen inguruko lau elkartea aritu dira: Txantxangorri, Gure Izarra, Txapel-Aundi eta Salletarrak.

Txantxangorri hasi
Txantxangorri elkartean hasiko da ibilbidea. Han txartela hartu eta Astigarragako Gure Izarra elkartera; Gure Izarra txartela seilatu, mokadu bat egin eta Martuteneko Txapel-Aundi elkartera; handik Loiolako Salletarrak-era; eta handik Donostiako Peñaflorida kaleraino. Pintxoak eta edariak lau elkartea horietan egongo dira. Ibilbideak 11 kilómetro eta erdi dauzka.

Ibilbidea egitea ez da ezer kobraztuko eta bakoitzak nahi duen zatia egin dezake, osoa egin gabe.

'Txutxu trena'
Ibilbidea oinez egiten ez due- nak *'Txutxu trenean'* joateko aukera izango du. *'Txutxu tre-*

na ere Txantxangorri elkartetik aterako da eta Donostiarako bidea egingo du. 10:00- etan egingo du lehenengo bidaia, eta 18:00ak arte ibili- ko da batera eta bestera.

Erakusketa Astigarragan
Bestalde, eta tranbiari egiten zaion omenaldiaren barruan, erakusketa jarrita dago Astigarragako kultur etxeen. Erakusketa ikusi liteke tranbia zaharraren argazkiak eta ibil- bidearen zati baten maketa. Erakusketa daude, baita ere, tranbiarekin lotura daukaten beste zenbait gauza: erre- mintak, garai hartan azokara joateko erabiltzen ziren xes- terak, harri txintxarra tren bidean banatzeko ibiltzen zen *otar-ttikia*, tren karrilak mu-

gitzeko ibiltzen ziren tenazak, eta abar.

Erakusketa abuztuaren 3ra arte dago jarrita. Pertsona bat ere jarri dute jendeari azalpenak emateko. Ordutegia: lan egunetan 18:00-20:30-etara, eta jai egunetan 11:00-13:00- etara. Astigarragan. □

Omenaldia Tranbian lan egin zutenei

Eguerdian bazkari-omenaldia egingo zaie Tranbian lan egin zutenei. Antolatzaileek esan dutenez, ez dute lortu Tranbian lan egin zutenen lista osoa. Horregatik, ahal zuten bezala egin dute zerrenda. Honako hauek dira: Manuel Borja ('Prantxes'), Luis Zumeaga, Antonio Zapirain, Lorenzo Almandoz, Jesus Arregi, Jose Astarbe, Juanito Egurza eta Vicente Pla. Bazkari-omenaldia Loiolako Salletarrak elkar- tean izango da, bihar, 14:00etan.

Norbaitek beste pertsonaren bat ezagutzen badu Tranbian lan egin zuena, antolatzaileekin harremanetan jarri.

DORRONSORO

OKINDEGIA

Bertan egindako kalitatezko ogia

J.Dorronsoro Okindegia, S.L

Lizeaga, 7 943 33 36 18 -20120 HERNANI

AMEGAR
Etxe tresnak Altzariak

Elektrogailuak TB- Bideoak- HI-FI-Opariak
Sukalde altzariak
Tel.: 943 55 11 25
Faxa: 943 55 16 30

Aran
Opariak Dekorazioa Bitxiak
Gaur zabalduko dugu denda berria.
Zatoz ezagutzera.
Elcano 35 - 20.120 HERNANI
Tel.: 943 33 03 25

Etxeberri
Taberna
Etxeberri 2.blokea - 943 55 1267
Egunero menuak, Asteburuan:
Bazkariak eta afariak.

SAN INAZIO JAIAK SANTA BARBARAN



Goian: Izeta, Oiartzabal, Tapia eta Baleri. Behean: Barrenetxea, Larrabide, Pikabea eta 'Larra'.

Izeta, Oiartzabal, Tapia eta Baleri txapeldun, San Inazio jaietako Herri Kiroletan

■ Jende asko inguratu zen atzo Santa Barbaran, eguraldi eguzkitsuak lagunduta ■ Bazkal ondoan bertsolariak izan ziren, eta ondoren umeentzako jokoak.

SAN Inazio eguna zen atzo, eta urtero bezala festa izan zuten Santa Barbaran. Eguzkiak lagunduta, goizean goizetik inguratu zen jendea bertara, eta arratsalde partera bitarte giro ederra sortu zen igo ziren artean. Urtero bezala, dianak eman zion hasiera festei 10:00ak inguru. Eguerdian Indio eta Atarrabiyori omenaldia egin zitzainen eta meza ere izan zen Santa Barbarako ermitan. 14:00etan Bertsolariek kantatu zuten. Segidan Herri Kirolak egin eta baziaria izan zuten eta arratsal-

dean Toka txapelketa, umeentzat jokoak eta txokolatada.

Herri Kiroletan jendetza

San Inazio jaietan Herri Kirolek ikusmin haundia pizten dute, eta aurten ere jende asko izan da parte hartu duten zortzi lagunak animatzen. Zortzi parte hartzaleak Hernanikoak edo Hernani ingurukoak izaten dira urtero, eta horrek ere xarma berezia ematen dio San Inazio jaiei. Aruten bi taldetan zeuden banatuta zortzi lagunak eta Tapia, Baleri, Oiartz-

bal eta Izetak irabazi zuten. Beste taldean Larrabide, Larrañaga *Larra*, Pikabea eta Barrenetxea izan ziren eta hauek ere lan polita egin zuten. Errelebotan egin zituzten lanak: aizkoran bi lagun (8 enbor mozten), korrika bat (6 buelta errekoridoari), eta harri jasotzen laugarrena (82 kiloko harri itxurako enborrari 9 altxa aldi). Diferentzi haundiak aizkoran atera zuten irabazleek, baina, tartea txikia izan zen bukaeran: minutu eta erdi ingurukoa. □



Joxe Anjel Tapia.

Baleri Aranburu.

Joxe Anjel Oiartzabal.

Joseba Izeta.

Kirodegia eta liburutegia goizetik egongo dira irekita abuztuan eta informatika gela itxita egongo da

■ Kirodegia 07:00-14:00 ■ Liburutegia 09:00-14:00.

ZENBAIT Udal zerbitzuk udako ordutegia dute abuztuan. Kirodegia eta liburutegia goizetik egongo dira irekita asteaz, gaurtik abuztu bukaera arte eta asteburuetan itxita egongo dira. Kirodegia goizeko 07:00etan irekiko dute eta eguerdiko 14:00etan

itxi. Liburutegia 09:00etatik 14:00etara egongo da irekita. Ordenadore gela itxita egongo da abuztuan, eta interneten ibili nahi duenak liburutegiko ordenadoreetan izango du aukera, dagoeneko 6 ordenadore bai baitaude internet dutenak. □

TIROA



Santa Barbaran tiroan, aurreko txapelketa batean.

'Ehiza ibilbidea' abuztuaren 9an egingo du Txantxangorrik

■ Elkartea aurtengo antolatu dituen 5 saioetatik azkena da eta erregularitate saria ere bertan erabakiko da.

TXANTXANGORRI elkartearak plater tiratzeko bost saio antolatu ditu aurtengo urterako. Azken saioa asteburuan izateko zen, baina, hilaren 9ra atzeratu behar izan dute. Ehiza ibilbidea izango da modalitatea, eta 30 plateretara jokatuko dute, Santa Barbaran. Inkripzioa goizeko 08:30etan

luntxa izango da Santa Barbaran, urtero bezala. □

I. URTEBETETZEA

Inaxi Errazkin Zubiarain
(Xanti Lizeagaren alarguna)
2002ko abuztuaren 1ean hil zen



“...GAINONTZEKO ELEAK KAMUTS,
HIZTEGI OSOA ERE BALDAR, ETA,
HIRU HITZEZ BAINO EZIN
HAINBAT GAUZA ADIERAZI:
MAITE ZAITUGU, INAXI.”
Zure familiak.

Hernanin, 2003ko abuztuaren 1ean.

ZERBITZUAK

■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYK: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

■ FARMAZIAK

- Egunez: Correa Perkaiztegi 8
☎ 943 551933
- Gauzez: Correa Perkaiztegi 8
☎ 943 551933